



# DONEZTEBEKO MONJARDIN GAZTELUA

## Nabarrako herritarren ekhimena

Monjardín-eko Gaztelu edo Fortalezia, bada esaten duenik, erromatarrek eraikitakoa dela, eta ondoren Banu Qasi-koek hobekuntzak egin zituztela. Iruineko Erresumako nafarrek Banu Qasi-koen kontra eginiko 907 ko ofentsiba, konkretuki Antso Gartzreiz I-aren erresumaldian zehar, Deio Herria-ren kontra, gazteluaren hartzearekin amaitu zen, ondoren Doneztebe Monjardín-ekoa deituko zena. Gainera errege baskoi honek erret panteoi bihurtu zuen, eta bertan izan zen hilobiratua, eta beste errege batzuk ere, halanola Gartzea Antsez eta Antso II Abarka.

Baskoien Jaun, Antso III "Nagusia" da, Iruine-ko Katedraleari donatzen diona, bere erresumaldian zehar. Champagne dinastiaren sartzearekin, ordurako Nafarroako Erresuma deiturikoan, hasten dira Erresumaren erreklamazioak Iruineko Katedralako Kabildoarekiko, Monjardín-eko fortalezaren posesioa zela-eta.

Tibalt I "Trobadorea"-k, apezpiku Peru Semeneitz Gazolaz-koari aurre egin zion, azken honek Iruinean zuen boterearengatik, eta bereziki Doneztebe Monjardín-eko Gazteluaren posesioarengatik.

Fortaleziaarengatik sortutako enfrontamentua Kabildoaren alde suertatu zen, Iruineko apezpikuak egin zituen monarkaren exkomunioaren eta Nafarroako Erresumaren inhabilitazioaren ondoren. Honek Tibalt I Erromara peregrinazioa egitera behartu zuen, horrekin lortu asmoz, Erresuma berriz ere habilitatuko zuen bula papal bat, eta bere pertsona exkomuniotik eximituko zuena.

Tibalt II "Gaztea"-k, hasten du operazio inportante eta inteligentea, Oro eta Doneztebe Monjardín-eko fortalezien ondorengo trantsiziorako, nahiz eta orduan oraindik ere har zekaketan posesioa fortalezia horietako nafar tropek, soilik nezesitate kasuan.

Frantses tropek eginiko Nabarrieriaren suntsiketaren eta 1284 ean Frantziako Errege Filipe "Ausarta"-ren heriotzaren ondoren, Kabildoak burguen erdia utzi zion Erresumari baina Erromak ez zuen hau onartu 10 urte berantagoarte. Filipe hau izan zen Nafarroako Joana I-aren protektore aipatu Nabarrieriaren suntsiketa garaian, eta jadanik erregina hau Frantziako errege Filipe "Ederra"-rekin ezkondua zegoen.

Dena den Iruineko apezpikutzak Oro eta Monjardín-eko fortalezia oso inportante horiek kontserbatzen zituen.

Apezpiku Arnalt Barbazan-goari itxaron beharko diogu, zeinak Frantzia eta Nafarroako Filipe II "Luzea"-ren erresumaldian zehar konbentzitu bait zuen Kabildoa, Eliza eta Nafarroako Erresuma-ren arteko gerrari amaiera emateko. Arnalt, Frantziako Erregearen aurrera presentatu zen, Priore Gartzia Egues-koaz akonpainaturik. Segituan heldu ziren akordio batetara, zeinarekin Iruineko hainbat auzoen jurisdikzioa Erresumara iragan bait ziren, Monjardín eta Oro-ko Gazteluekin eta hauen auzoko herriekin batera.

Deio-k, eta berarekin Monjardin Gazteluak, Agramont (edo Peralta-Azkoien-Nafarroa) partiduan parte hartu zuen, enfrentatuz horrela Beaumont (edo Lukuze) partiduarekin, Euskal Erresumaren hondarrak suntsitu zituen gerra zibilean zehar. 1494 urtean, espainol presioa izugarri handitu zen Nafarroa murriztuaren kontra. Errege Katolikoek exigitu zieten nafar soberano Katalin I Foix-koari eta Johan III Albret-ekoari, Biana eta Zangotzako plazak. Gainera espainol tropek fortalezia klabe batzuk okupatu zituzten, halanola Lerin, Larraga, Andosilla, Allo, Santacara, Monjardin etc.

1512 an espainol tropek Nafarroako Erresumaren kontra egin zuten inbasio militarren bidez, Luis III Beaumont-ekoak, Konte Lerin-goia eta ilegitimoki Nafarroako Kondestablea, nafarrek "Faltsario" gisa ezagutzen duten Espainiako Errege Fernandok titulatu izan ondoren, hartu zuen, Belaz Medrano-koaren agindutara zeuden nafarrek defendatzen zuten Doneztebe Monjardin-eko Gaztelua. Horretarako, Luis III Beaumont-ekoak, bere General Buruaren beneplazito eta babesari izan zuen. General Buru hori Duke Albakoa zen, eta horrela espainol tropek eraso egin zioten Monjardin-i, Iruineako okupazio militarren ondoren.

Dukearen eta Kontearen familien artean ondoren eman zen ezkontza elkartze batek probokatzen du, Doneztebe Monjardin-eko Gaztelua Albako Etxeraen eskura iragatea, jadanik bertako populazioak sufritzen zituela Pirinioz Hegoaldeko Nafarroan eman zen okupazio militarren asentamentua.

Baina esan beharra dago, hauek ez zirela azken episodio belikoak izan, zeren 1833 an Lehen Gerra Karlista hasten bait da, Xaho-ren hitzetan Euskaldunen intsurrekzioan zehar, artean ere Nafarroako Erresuman. Horrela Monjardin-eko fortalezia okupatu zuten indistintoki karlista eta liberalek, gerra karlistetan zehar.

Hauek dira motiboetako batzuk gaur hemen biltzeko, gure Herri zabal, eder eta sinestezinaren beste puntu geografiko honetan, harrotasunez oroit dezagun izan ginena, garena, eta izanen garena ere.

***GORA NAFARROA OSOA!!***

***Nabarrako banderaren altxatzea  
2008ko Apirilaren 26an  
Monjardineko Doneztebe 12:30etan***